



MUNHOA IKASTOLAKO XARTA

2023-2024

39 IKASLE

3 ERAKASLE

ALOÑA (ZUZENDARIA), MAIDER ETA EZTITXU

2 LANGILE

AÑA ETA JOANES

ORDEZKARI 1

PEIO

**IKASTOLA HAUTATUZ, GURE
HAURREK EUSKARAZ IKASI ETA BIZI
DAITEZEN HAUTATU DUGU.**

Horretarako, murgiltze sistema
beharrezkoa da.

Gure ikastolak ongi funtzionatzeko,
zutabe horiek derrigorrezkoak dira :

EUSKARA · AKTOREAK · ELKARTEA

EUSKARA

**EUSKARA IKASTOLAKO HIZKUNTZA NAGUSIA DA.
DENEN ARDURA IZAN BEHAR DA : IKASLE, BURRASO,
ERAKASLE, LANGILE, ANIMATZAILE**

IKASLEAK

Haien ikasketetan ikasleak euskaraz komunikatzea deituak dira (salbu frantses kurtsoetan) : kurtsoetan, kanpoko tenoreetan, kantuan, ateraldietan, haurzaindegian. Horretarako, ekipa pedagogikoak eta laguntzaileek euskal giro bat sortzen dute denak euskaldun senditzeko.

BURRASOAK

Ikastola eremuan euskarari lehentasuna ematea beharrezkoa da. Hortako burrasoeri galdegina zaie beti euskaraz mintzatzea ikastola eremuan : xeilan, haurtzaindegia/kantina/siesta ordezkapenetan. Euskaldunentzat errexia dela egia da, aldiz, erdaldunentzat laguntza eskatzea aholkatzen dugu oinarriak menperatzeko : « Egun on », « milesker », « bihar arte »

ANDEREÑOAK ETA LANGILEAK

Euskara lehenetsia da komunikatzeko. Baina, itzulpena segurtatua da galdegiten dutenentzat (mailak, bilkurak, ...)

ANIMATZAILEAK

Euskaldunak hautatzen dira, hortarako, batzuetan, animazioak mugatuak dira.

AKTOREAK

NORK ZER EGITEN DUEN JAKITEA DERRIGORREZKO DA IKASTOLAN ONGI IZATEKO.

ANDEREÑOAK

Pedagogiaz arduratzen dira eta frantses estatuak ditu pagatzen, Hezkuntze Nazionalan dira. Urtero, gurasoekin bi bilan proposatzen dituzte ikasleentzat.

LANGILEAK

Gure haurren ongi izatea segurtatzen dute, haurtzaindegia kudeatzen dute, astean zehar garbitasunaz arduratzen dira, erakasleak laguntzen dituzte, kantina egiten dute, siesta zaintzen dute, ateraldietan parte hartzen dute.

Munhoa Ikastolak ditu pagatzen, mugagabeko kontratuan dira.

BURRASOAK

Ikastolaren biziaren aktoreak dira haien inplikazioa osoa izan behar delako : lan batzordeak, biltzar nagusietan parte hartzea, Seaskak dituen orientazio hautuak bozkatu, ekintzetan lan txandak segurtatu.

BULEGOA

Bulegoak ikastola elkartearen funtzionamendua kudeatzen du (diruzaintza, lan batzordeak, garbiketa,...). **Ikastolako burraso boluntarioak dira.** Erabaki nagusiak hartzen ditu eta bilkurak antolatzen ditu beharren arabera burrasoak gomitatuz. Ikastolaren biziaren komunikazioaz arduratzen da.



ELKARTEA

LAN BATZORDEAK

Ikastolaren bizia posible da burrasoen inplikazioari esker. Famili bakoitzak lan batzorde batean parte hartzea behartua da (gogo, gaitasun, disponibilitateen arabera) eta ikastolaren biziarentzat beharrezkoak diren bilkuretan parte hartzen du.

Urtean zehar diren ekintzei esker ikastola bizi da : bixkotx salmenta, taloak, ostatu, bazkari,... Hortarako famili bakoitzak zenbait lan txanda ukanen ditu (ekitaldi finkoak : Nafarroaren Eguna, Herri Urrats, Bortuaren Eguna, eta abar...)

Munhoa Ikastolak Garaziko ikastolarekin funtzionatzen du eta elkar laguntzen dira.

BUKATZEKO, IKASTOLA ELKARTE BAT BAITA, FAMILI BAKOITZA HARPIDA DA (KOTIZAZIOEKIN), ETA BILTZAR NAGUSIETARA GOMITATUA IZANEN DA.



KONTAKTUA

Bulegoa

munho.ikastola@gmail.com

Erakasleak

munhoa.azkarate@gmail.com

